BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

264

AGINDUA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, batetik, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itun berriak sinatzea ebazten duena, eta, bestetik, 2014-2015 ikasturterako zenbat unitate itunduko diren zehazten dituena.

Hezkuntza-itunen erregelamendua onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren bidez, itun berriak sinatzeko deialdia urtero argitaratuko dela ezartzen da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko maiatzaren 21eko Aginduak 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako hezkuntza-itun berriak sinatzeko deialdia egiten du, eta 2014-2015 ikasturterako zenbat unitate itunduko diren zehaztu.

Behin aztertuta ikastetxeek aurkeztutako eskariak, eta proposamenak egindakoan, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetarako itunpeko ikastetxeek duten plangintza onartzea, hezkuntza-maila bakoitzeko unitate kopurua zehaztuta (I. eranskina).

2. artikulua.– 2014-2015 ikasturterako itunpeko ikastetxeen zerrenda onartzea, hezkuntza-mailaka; agindu honen II. eranskinean zehaztu dira zenbatekoa, unitate-kopurua, hizkuntza-eredua eta itun-araubidea.

3. artikulua.– Agindu honen III. eranskinean azaltzen diren ikastetxeei hezkuntza- ituna ukatzea. Eranskinean bertan azaltzen dira erabaki hori hartzeko arrazoiak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 30a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

Araba

Herria	Ikastetxea	Maila	Izena	Taldeak 2014-2015	Taldeak 2015-2016
Vitoria-Gasteiz	CPEI NC Learning Investigation Center HIP	Haur- Hezkuntza (2. Zikloa)	Haur Hezkuntza	1	2

II. ERANSKINA

Araba

Herria	Ikastetxea	Maila	Izena	Moduloa	Talde	Eredua	Euroak
Vitoria-Gasteiz	CPEI NC Learning Investigation Center HIP	Haur- Hezkuntza (2. Zikloa)	Haur Hezkuntza	Osoa	1	A	62.687,79

III. ERANSKINA

Ukatzeko arrazoiak: 1.– 2014ko maiatzaren 21eko Aginduaren 6.2 artikuluaren arabera ez ditu betetzen eskolatze-beharrak.
2.– Ez daude deialdi honen esparruaren barruan.

BIZKAIA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Maila	Ukatzeko arrazoia
Barakaldo	CPES Beurko Check BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1
Bilbao	CPES Armengol BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1

GIPUZKOA

Udalerria	Ikastetxearen izena	Maila	Ukatzeko arrazoia
Irun	CPES Centro Formación Mendibil BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1
Urnieta	CPES Cesa BHIP	Erdi Mailako Heziketa Zikloa	1
		Goi Mailako Heziketa Zikloa	1